

1. ZER DA ENPLEGU PUBLIKOA?

Estatuak, Administrazio Publikoak eta Legedi publikoak araututako erakundeetan, euren kontu lan egiten duten langileen enplegu mota da. Honen barruan funtzio publikoaren arabera, Administrazio Publikoaren zerbitzura langile-mota ezberdinak daude: funtzionarioa, pertsonal langileak eta aldi baterakoak.

Administrazio Publikoek euren lan-eskaintza publikoen arabera aukeratzen dituzte langileak, deialdi publikoaren bidez eta lehiaketa-sistemaren bitartez, oposaketa edo lehiaketa-oposaketa; denetan berdintasunaren, merituen eta gaitasunen printzipio konstituzionalak bermatzen direlarik.

Hiru Administrazio mota daude:

1. Estatuaren Administrazio Orokorra.
2. Administrazio Autonomikoa (Autonomi Erkidegoak).
3. Udal Administrazioa (Udalak, Mankomunitateak, etab.)

2. BETEBEHARRAK

Ohikoak diren betebeharrak hauek dira

a) Espainiar nazionalitatea edukitzea edo Europar Batasuneko Estatu kideetako bateko nazionalitatea edukitzea 17/1993 legearen arabera, aukera hau aintzat hartzen duen Nazioarteko Tratatu bat badago.

b) Deialdiaren oinarrietan adierazten den adina izatea. Funtzionario postuetarako adin nagusikoa izatea eskatzen da eta pertsonal langilea izateko nahiko da 16 urtetik gorakoa izatea.

c) Deialdi bakoitzean adierazten den titulua edukitzea edo, eskaeraren aurkezpenaren epea amaitzen den egunean, hau edukitzeko baldintzetan egotea.

d) Dagokion funtzioak burutzeko bategarria ez den mugapen fisiko edo psikikoa edo gaixotasuna izatea.

e) Espediente disziplinar bidez edozein Administrazio Publikoetako zerbitzuetatik baztertua ez izana, ezta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua egotea.

Titulazioa

Bete beharreko funtzioen espezializazioa dela eta, kidego bakoitzaren barruan eskalak egon daitezke, onarpenerako eskatzen den titulazio mailaren arabera osatzen dena.

Taldea	Sartzeko tituluaren eskakizuna	Kidego Orokorra
A	Doktorea, Lizentziatua, Injeniarria, Arkitektoa edo baliokidea	Goi Mailako Teknikaria
B	Unibertsitate-diplomatua, Injeniarri Teknikoa, Arkitekto Teknikoa, Hirugarren mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea	Kudeaketa Teknikaria
C	Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.	Administraria
D	Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea	Administratrari laguntzailea
E	Eskola-agiria	Mendekoa

3. HAUTAKETA PROZESUAK

Hautaketa prozesuak, orohar, oso luzeak dira. Hutsik dagoen dagoen lanpostuaren iragarkiarekin eta eskaeraren aurkezpenerako denboraldiaren finkapenarekin hasten dira. Horren ondoren lehen hautaketa bat egiten da, Curriculum Vitaearen eta hautagaiak aurkeztutako formularioetako informazioan oinarrituta.

Hautaketa sistemak

Ohiko prozedurak hauexek dira:

- a) Oposaketa. Hautagaien gaitasunak eta trebetasunak neurtzen proba bat edo gehiago burutzean datza, bertan aterarako puntuazioaren arabera funtzioan hurrenkera finkatuz.
- b) Lehiaketa. Aurretik ezarritako baremazioaren arabera hautagaien meritua ebaluatzen dira eta honetako puntuazioak ere hurrenkera finkatzen du.
- c) Lehiaketa-oposaketa. Aurreko bi atalak konbinatzen dituen sistema mistoa da.

Karrera funtzionarien postuak betetzeko erabiltzen diren pertsonal-hautaketak, orohar, oposaketa eta lehiaketa-oposaketa bidez egiten dira eta, salbuespenetan soilik, lehiaketa bidez. Pertsonal langile iraunkorren hautaketa prozesuetan, aldiz, ohikoena lehiaketa-oposaketa da.

4. AHOLKU BATZUK

Nahi baduzu, egin dezakezu.

Oposaketa gainditzeko egin behar den gauza bakarra ikastea da. Bizitzan behin bederen denok egin duguna. Ikasteari orduak eskaintzea bezain garrantzitsua da etekina optimizatzeko ikasketa-teknikak moldatzea. Oposiziogilearen prestaketa denboraldia kirolari profesional baten entrenamendu garaia bezalakoa da, biek gainditu behar baituta dagokien proba. Oposiziogileak arrakastan pentsatu behar du uneoro, pazientzia eta zorrotzasunez lan eginez lortuko duena. Honek guztiak bere gaitasunen jabe egingo du eta probaren egunean ikasitakoa frogatzeko gai izango da.

Material aukeraketa.

Ikasketa plan zorrotz bat finkatu eta betetzeaz gain, material egokia izatea garrantzitsua da. Deialdi bakoitzean eskatzen den mailaren arabera, gai orokorrak eta zehatzak ezberdinak izan ohi dira. Oposiziogileak bere

materiala sortu dezake edo honezkero egindako bat lortu. Norberak bere materiala egiteko, oposaketan eskatzen diren eskuliburuak eta legegintza-testuetara jotzea da komenigarriena.

[Oposaketa prestatzeko oinarrizko arauak eta legeak: ikasgai-zerrenda eta legedia.](#)

Ikasgai-zerrendako garapen teorikoaz gain, ezinbestekoa da frogan izango dugun ariketaren antzekoak diren material praktikoak eskura izatea, azterketa gainditzeko trebetasun egokiak entrenatzeko.

5. OPOSAKETAK PRESTATZEKO ALTERNATIBAK

Etxean ikasi

Materiala norberak lortuta (ezagun baten bidez edo interneten) edo urrutiko ikastaroak eskatuta egin daiteke. Azken hauek materialaren bidalketa, tutoriak (postaz, faxez, telefonoz nahiz internet bidez), orientazioa eta gida eta hariketa praktikoak eskaintzen dituzte. Etxean ikasteak antolaketa eredugarri bat eskatzen dio oposiziogileari eta baita ikasketa ohiturak hartzea, borondatea eta, batez ere, beharrezkoa den informazio guztia (datak, ikasgaiak, aldaketak?) biltzeko bitartekoak izatea ere.

Akademia batera joatea

Akademia batean eskolak jasotzea ikasketa ohiturak hartzeko eta prestaketa erritmo bat markatzeko erabilgarriak dira eta zalantzak argitu eta, azken proba nolakoa izango den jakiteko, azterketak egiteko aukera ere ematen dute. Informazio eguneratu maneiitzen dute, zalantzak argitzen dituzte eta aurreko oposaketen azterketa ereduak ere erabiltzen dituzte. Akademietara joaten diren oposiziogileen %70-75ak gainditzen du proba, baina akademia hau edo haren alde erabaki baino lehen, garrantzitsua da prezioez gain, euren ibilbidea zer nolakoa izan den ezagutzea.

Salneurriei dagokienez, aukeratutakoaren arabera oso ezberdinak izan daitezke. Akademietako aurrez aurreko eskolak dira garestienak: hileroko 40

eta 150 euro artean ordaindu behar baita, matrikula-tasa eta ikasgai zerrendaz (40-60 euro) gain. Prestaketak urtebete iraungo duela kontutan harturik, guztira 520 euro eta 1860 euro artean ordaindu beharko da. Urruneko ikastaroak, aldiz, 400 eta 700 euro artean ordaintzen dira, erdibideko irtenbide bat izanik. Interneteko aukerak dira merkeenak, 600 eurora iristen ez direlarik.

6. DEIALDIARI BURUZ NOLA JAKIN

Aldizkari Ofizialak

Edozeinek izan dezake deialdien berri Aldizkari Ofizialen bidez, Administrazioak plazaratzen dituen aldizkako argitalpenak, interneten baitaude.

- [Estatuko Aldizkari Ofiziala](#)
- [Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Aldizkariak](#)
- [Gipuzkoako Aldizkariak](#)

Gazte Informazioa

GIPUZKOANGAZTEko oposaketen dossierra: web orrian astero eguneratzen den oposaketen dossierra topatuko duzu. Gipuzkoako Administrazioako lan-eskaintzak daude bertan, baita beste erkidego batzuenak ere (Nafarroa, Bizkaia, Cantabria eta Errioxa).

[. Gipuzkoako oposaketak.](#)

[. Beste komunitateak.](#)